

GURE JAIK JENTIL KUTSUAREN BILA?

Jaiak, bizitzaren alderdi alai, gozoa. Betiko ekintza latzetik, gogorretik egindako ihesaldiak. Egunerokotasunaz beste aldean dagoen izaera jostagarri, atsegina. Lan arrunt eta aspergarriari soberatzen zaion astiune gozo bezain iheskor eta laburra. Bizimodu atsegina, eramangarriago egin ohi zaigu geroaren pozez; gero, laster jai izango dugun ideia polit, irribartsuaren argitan. Jai bera laburra, murrizta gertatu ohi zaigu, baina hark bere aurretik igortzen duen xarma, irudimenaren bidez ariman egiten digun irri eta zirritxoak! Jaiak zuzpertzten dute langile abialdua, bizipoza, alaitasuna emanez.

Jaiak herri bakoitzaren izaerari itsatsirik daude. Beste ohitura batzu bezala eta areago oraindik, herriaren ispilu direla esan genezake. Herriaren izaerari darion adierazpide jator. Beraz, herri bakoitzak berari dagozkion, bere moldeko jaiak izan ohi ditu. Zenbait jai han eta hemen ospatzen direnak edo nazioartekoak izan arren, bakoitzak bere erara ospatu ohi ditu.

Kristau aroaren aurretiko jaiak aintzinasunaren ilunpe itsuan galtzen dira; ia ezer ere ez dakigu haietaz. Jentil aroko aztarnak erdi-erabaturik, lausopean bezala heldu zaizkigu. Beraz, askotan, ziurtasuna baino gehiago usteak, aieruak edo susmoak ditugu. Badakigu, adibidez, eguzkiaren goiko eta beheko itzulian eta izadia berbizten zen urtaro bakoitzean ospakizun bereziak izaten zituztela, horien aztarnak, antzaldaturik bada ere, gu-

regaino heldu baitira. Baina onen-onenean ere zertzeladarik ez dakigu, denboraren erratzak aienatu baititu; ezta epe-laburrago-ko jairik, orain duk astero dugunaren antzekorik ote zuten ere.

Oraingo gizakia makinari eta elektronikari itsatsirik bizi denez, aintzinateko hura izadiari eta kosmosi gehiago loturik bizi zen. Haren erlijio-iturri ere izadiaren elementurik garrantzitsuenak ziren. Eguzkia, adibidez. Eguzkia behean eta goren agertu ohi deneko aldiak garrantzitsuak dira garai zaharreko gizonarentzat eta eguberrietan eta ekainean urtaro bereziok handikiro ospatzen zituztela ohartzen gara. Adierazpidetzat zenbait errito eta sinbolotara jo ohi zuten. Sinbolo hauetarik erabiliena eta ezagunena, suarena. Baina suarekin batera, urarena ere maiz ageri da; baita eguberriko eta ekaineko ospakizun nagusietan ere, izadiaren emankortasunerako elkarren osagarri baitira.

Jainko eta jainkosa ongile eta miragarri gain, «parte txarreko» beste pertsonaia harrigarri bezain kaltegarriak ere bazituzten eta hauek uxatu, desegin edo errez bukatzen ziren zenbait errito. Ekainean, soroetako emaitzei ustez kalte egin ohi zieten sorgin eta patariak erretzea errepikatzen da suaren inguruan egindako dantza eta kantuetan. Ihauterietako zenbait erritotan ere antzera jokaten da, adibiderik adierazgarrienetarikoa, Lanz-ko ihauteriakoa izanik; hots, Miel Otxin erraldoi lapurraren erreketan plaza erdian, herri osoaren zentzabidetzat. Ospakizun hauetan maiz ematen den fenomeno da hori: gaizkiletzat diren pertsonaiez edo kaltegarritzat jotzen diren animaliez moztortzea, gero hura errazago galdu ahal izateko. Baina J. Caro Barojak dioenez, hasiera batetan erlijio-errito hutsak zirenak, ospakizun jostagarri eta irrigarri bihurtzen dira denboraren joan-etorrian, estetikaren ikusgarritasuna ere maiz nagusitzen delarik.

Zenbait ipuinetan, jentil arotik kristau arorako aldakuntza nabari da. «Jentil» hitzaren lehen esannahia kristau ez dena edo eta kristau-sinesmenik ez duenarena da. Baina apurka-apurka esannahi hori galduz, izaki miragarri edo mitikotzat hartu izan da jentilla. Beraz, gizon haundi, harrigarriak, goi-mailako kultu-

raren jabe direnak, langintza ezberdinetan trebeak, aintzinate lainotsuaren baitan galduak.

Gipuzkoako Goiherriko ipuinetan bertako baserritarrekin izandako zezio, burruka eta areriotasuna azpimarratzen dira. Bartzuen eta besteen arteko harremanak ez ziren bat ere bakezkoak. Hortik zera ateratzen du J. Caro Barojak: herrietan zenbait talde kristauturik zeudela, beste zenbaitek lehengotan edo jentil irauten zuten bitartean. Haiek (kristauak) nagusitu ahala, hauek izatera hartigarritz eta gaiztoz ageri zaizkigu. Horrela, jentilak aztiak ziren, ikaragarritzko indarrez hornituak.

Kristaueb garaipena eta jentilen hondamendia J. M. Barandiaran-ek 1917.ean Jose Mari Auzmendi ataundarragandik jaso eta Aralar mendian lekutzen den elezahar baten bidez adieratzen du. Ezaguna da, baina laburra denez, berriro ezarriko dut harira dator eta:

«Aurtzaroan maiz entzun nun Ataungo ipui zarrak dioenez, ientillak Argaintxabaetako munoan, Aralar-mendin, iostatzen ari ziran, sortaldetik odei argi bat zetorkiela ikusi zutenean. Zekustanakin beldurtuta, agure iakintsu bati otsegin eta toki artara eramán zuten odei miresgarri hura ikusi eta aren esannaia azaldu zezaien. Eta agureak esan zien: «Kixmi iaio da eta gure endarenak egin du: aldameneko amildegitik iurti nazazute». «Kixmi», agurearen izkeran, tximiñua zan ientillen arteko Kristoren gaitzizena. Orduan, odeiak atzetik zerraikela, sarkalderuntz lasterka abiatu ziran ientillak eta Arrastarango zelaitxora iritxi ziranean, bat batean, arri aundi baten azpian ondatu ziran (...) Orra nola amaitu zan ientil-aroa».

Elezahar hauei zenbait kasutan, eranskinak ezarri zitzaizkien geroago, kristau-kutsua emanez. Horrela, jentil haietariko bat bizirik, amildu gabe geratu omen zen eta kristauen artera jaitsi zela menditik Kristoren jaiotzaren berri emanez: Olentzero.

Dena dela, gero ere jentilak baziren. Kristautasuna nagusitu ahala, haiek ezkutuan geratzen dira eta haien ahalmena kris-

tauengana igarotzen da. Horixe adierazten digute hainbat ipuinek. Ipuin hauen arabera, kristauak trikimailuz (indarrez ez baitzuten zereginik) menderatzen dituzte eta haien trebetasun, jakintza eta sekretoen jabe egiten dira. ordezkatze-bilakaera nabari da istorio xume horietan: jentil-gizartea apurka-apurka suntsituz doa eta kristau-gizartea finkatuz. Istorio hauetan, kristauen alde-tik heroi edo pertsonaia miresgarriren bat azaldu ohi da beti. Aralarko istorioan Done Mikel ageri da herensugea galduz edo honen irudipean deabrua azpiratuz eta Goñiko Teodosio gudalburua askatuz. Beste gehienetan, ordea, San Martin da jentilen gain garaipena lortzen duena. «San Martin Txiki» deritzo istorioetan; jator, azkar eta maltzurra jentil erraldoi indartsuci kontrajarriz. Nekazaritzako jakituria, errota, ola eta beste oinarritzko langintzetako sekretoak ebatsi zizkien maltzurkeriaz haien aurka demak eginez, haien inguruan zelatan egonez etab. Baina zergatik San Martin eta ez beste norbait? Jentilek euren heroiak zituztenez, kristauak santuak miresten zituzten eta hauei laguntza eskatzen. Errosmesaldiek zerikusi handia izango zuten, zalan-tzarik gabe, santu hauetariko batzu ospetsu egiteko; erromes-bideetatik hurbilekoak zirenak batez ere. Hortaz, ez da bat ere harritzekoa Sta. Marina galestarrak Euskal Herrian 138 eliza izatea, Santiagok 28 eliza eta 50 ermita eta S. Martinek 146 eliza eta 78 ermita izatea. Beraz, batzuren ospea ipuinetako heroi izateraino heldu da.

Ez dago esan beharrik kristautasuna nagusitzcan, hark bere izaeraz moldatu eta kutsatu izan duela guztia. Tokiak, gizartea, pentsaera, hizkuntza, ohiturak kristautasun ingurumari horretan murgildurik, giro horretaz aserik geratzen dira, gainean ezartzen den geruza edo estratu sendo baten antzera.

Azken bi hamarkada hauetan, ordea, besterik nabari da. Gizartea laiku bihurtuz doa eta erlijio-adierazpenek ez dute garai batetako onerizpenik. Gizarteak ez du babesten kristau-bizitza. Eliza eta elizakoari betoskoz, arrotz eta ia etsai bezala begiratzen zaie. Bere lekutxora zokoratua izan dela dirudi; edonon gailen agertzerik, behintzat, ez du izango. Hala ere, euskaldunen sines-

gabekeria, agnostiko bihurtzea kristau-ikuspegitik tamalgarri bada ere, ezin esan beste horrenbeste Elizaren munduko ospe eta boterea galtzeaz.

Zer esan gaur eguneko jaietarako? Zenbait taldek halabeharrez amor ematen diete kristau-kutsuko jaietarako. Santuen izeneko jaiak izan arren, laikusatasuna azpimarratzen da, sarritan apropos eta beren-beregi erlijio-kutsua ukatuz.

Ihauteria eta antzeko jaietan eliza eta elizari dagozkionak barregarri uzteko saioak nabari izaten dira, irudimen motelak beste norakorik, errekurtsorik ez duenean, erlijioaren kontura irri egitera jotzen. Bai, gaur egun ere, istorio zaharretan bezala, sinestunen eta sinesgabeen arteko azpi-azpiko tirabira sorra soma daiteke. Ez dakit egoera norantz irauliko den, baina «euskaldun fededun» beldur gabe esan ohi zenean baino berdintsuago dau-de indarrak.

Azkenez, esaten ari naizen laiku-olde edo gorantz datorren pentsamolde indartsu horren adierazgarritzat, oraintsu irakurri dudana idazlan baten zatiren batzuek ezarriko ditut hemen, harira baitator. Idazki hori, kristauen delako monopolioagatik erresumindurik dator eta esanguratsua deritzot, euskal gazteriaren sail baten pentsamoldea islada dezakeelako:

«Zer dauka, bada, igandeak asteko beste egunek ez daukatena?»

«Eta zazpigarren egunean atsedena hartu omen zuen. Bai, Jainkoak horrela egin zuelako eta honen segitzaileei burumuintan sartu zaielako, geuri ere zazpigarrenean, hots, igandean, atsedena eguna dagokigu. Eta kitto!»

Hasiera hasieratik nazkatzen gaitu eta beronen atzaparretatik ez gaitzeko irten inondik eta inola ere. Hau zorigaitza! Urtean zehar ditugun jaiak -azkenaldian Konstituzio espainola zenbaitak ospatzen badu ere- santu eta santei eskainitako egunak dira, den denak. Eta inork ez du fitzik esaten. Denok kontentua. Hau zorigaitza! Eta igandearekin beste horrenbeste gertatzen

zaigu. Igandea kristianoek eta katolikoek inbentatu zuten. Zertarako? Mezatara joateko, prefosta. Eta mezatara ez goazenok? Mezatara ez goazenok eta sinesten ez dugunok, gauza guzti horiek pairatu, jasan eta irentsi egin baino beste biderik ez zaigu geratzen».

Hor dago hori...! Ahokada garratzak! Baina norbaitzuren pentsaera eta sentimenduak adieraz ditzakeelakoan, bego lekukotasuna.

Jentil arorantz bira egingo ote du gure gurpilak...?

Luis Baraiazarra